



2023-2024

Ikasturteko

Hezkuntza Ez-Formaleko

Programa



begoñazpi ikastola





Agurra

Guraso agurgarriok:

Begoñazpi Ikastolako hezkuntza proiektuko ardatzetariko bat, Hezkuntza Ez-Formaleko programa da. Hau, ahal dan neurrian, ikasleek garapen osoa lortu asmoz, Hezkuntza Formalaren osogarri izango da.

Hau dala eta, eskaintza zabal eta anitz honek, batik bat, hizkuntza, kirol eta arte programak landuko dauz.

Hauxe da 2023-2024 ikasturterako prestatu dogun eskaintza.



hezkuntza ez-formala
educación no formal

Aurkibidea

PROGRAMEN AURKEZPENA	4	ORDUTEGIAK ETA PREZIOAK	26
JARDUERAK	4	JARDUEREN IRAUPENA	35
JARDUERAK	5	INFORMAZIO OROKORRA	38
HIZKUNTZA-PROGRAMA	5	IZENA EMOTEKO EPEA	38
Ingelesa	5	IKASLEEN JARRAIPENA	39
Euskera tailerra	6	HARTU-EMONETAN JARTZEKO	39
ARTE-PROGRAMA	7		
Musika	7		
Pintura	8		
Haur-balleta	9		
Euskal Dantzak	10		
Antzerkia ingelesez	11		
Bertsolaritza	12		
KIROL-PROGRAMA	13		
Xakea	14		
Patinajea	15		
Dantza Modernoak	16		
Taekwondo	17		
Saskibaloia	18		
Futbol 5	19		
Heziki / Multijolasak	20		
Esku pilota eta pala	21		
Tenisa	22		
Atletismoa	23		
Eskola Kirolean izen-emotea	24		
Informazio erabilgarria	25		

Programen aurkezpena



Jarduerak

JARDUERAK	JARDUERA	4 URTE	5 URTE	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4	LH 5	LH 6
HIZKUNTZA-PROGRAMA	INGELESA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	EUSKERA TAILERRA							✓	✓
ARTE-PROGRAMA	MUSIKA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	PINTURA	✓	✓	✓					
	HAUR-BALLETA	✓	✓	✓					
	EUSKAL DANTZAK			✓	✓	✓	✓	✓	✓
	ANTZERKIA INGELESEZ					✓	✓	✓	✓
	BERTSOLARITZA							✓	✓
	XAKEA						✓	✓	✓
KIROI-PROGRAMA	PATINAJEA		✓	✓	✓				
	DANTZA MODERNOAK		✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	TAEKWONDO		✓	✓	✓	✓	✓		
	SASKIBALOIA			✓	✓	✓	✓	✓	✓
	FUTBOL 5		✓	✓	✓	✓*	✓*	*	*
	HEZIKI/MULTIJOLASAK			✓	✓				
	ESKU PILOTA ETA PALA			✓	✓	✓	✓		
	TENISA			✓	✓	✓	✓		
	ATLETISMOA					✓	✓		

Hizkuntza eta Arte-programa batzarra

Eguna: bagilaren 5a, astelehena

Tokia: Begoñazpi Ikastolako kapera

Ordutegia: 17:00

Kirol-programa batzarra

Eguna: bagilaren 7a, eguaztena

Tokia: Begoñazpi Ikastolako kapera

Ordutegia: 17:00

- ✓ Eguerdiko jarduerak
- ✓ Arratsaldeko jarduerak
- * Hitzarmenak

Hizkuntza-programa



Ingelesa



Helburuak

Jarduera honen helburua, ikasleek egungo, entretenigarri eta bakoitzak dauan mailari egokitutako metodologiaren bidez, ikastea izango da. Beraz, Hezkuntza formalaren osagarri dan jardue-
ra izango da. Ikuspegi metodologikoak, komunikazioan oinarrituz, adimen anitzak, pentsamendu errutinak eta lan kooperatiboa hartuko dauz aintzat. Azken baten, gure ikasleek Cambridge Language Assessmenten zenbait azterketa ofizialek ezarritako maila bera arrakasta osoz erdiestea izango dogu helburu.

Haur Hezkuntzan, Jolly phonics metodoa erabiliko da. Umeez, ingelesaren fonetika barneratzeko liburuxka izango dabe. Gelan liburua erabiltzeaz gain, beste dinamika batzuk be erabiliko dira. Dinamika honeen artean jokoak, abestiak, ipuinak, flashcards-ak, marionetak... egongo dira. Metodo honen bidez, umeez letrak eta soinuak ikasiko dabez; xedea, ulermena hobetzeko, ingelesaren soinuak ikastea izango baita.

Lehen Hezkuntzan ikasleek, hizkuntzaren arlo guztiak garatuz, Cambridge Young Learners maila lortzeko prestatuko doguz.

Informazio erabilgarria

TALDEAK

Taldeak 8-12 ikasleek osotuko dabez.

MATERIALA

- Haur Hezkuntzako ikasleek Ikastolak eskatuko dauan Jolly Phonics testuliburua erosi beharko dabe.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek Ikastolak eskatuko dauan testuliburua erosi beharko dabe. Aurrekoaz gain, koadernoak be beharko dabe.
- Maila guztietako ikasleek, Haur Hezkuntzakoek barne, arkatz, borragoma eta margoak dauzan estutxea ekarri beharko dabe.



HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte
JOLLY PHONICS

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila	3. - 4. maila	5. - 6. Maila
STARTERS	MOVERS	KET
[pre A1]	[A1]	[A2]

Euskera tailerra

Helburuak


Jarduera honek euskera ikasgaia indartzea eta sakontzea izango dau helburu. Beraz, ikasgelan lantzen diran hizkuntza konpetenziak landuko dira. Batez be, ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena landuko da. Horretaz gain, hizkuntza-formak be landuko dira.

Taldeak

Taldeak 6-10 ikaslek osotuko dabez.

Materiala

Koaderno eta estutxea.



LEHEN HEZKUNTZA

5. - 6. maila

EUSKERA TAILERRA

Arte-programa



Musika



Helburuak

Danok dogu musika adierazteko, sentitzeko eta entzuteko gaitasuna, hau da, maila desbardinetan bada be, garatu eta sustatu behar dan musikaltasuna. Lehen aldiz umea inguruagaz hartu-emonetan jarriko daben entzumen esperientziei ekiteko, ikasleen garapen integrarlari bidea emonez, hainbat metodo erabiltzen daben musika-eskolak emongo dira.

MAX Y MIA METODOA

Programa honen helburu nagusia, umearen garapena ezeze, musikaren indar zein ahalmenaren hedapena be bada. Hau, umeak bizi dauan momentuaren arabera eboluzio-aldietan antolatutako metodoa da.

Informazio erabilgarria

LEHEN HEZKUNTZA

- LH 3. mailan, musika-tresna saioak bakarkakoak izango dira.
- Ikasturtean galdu daitekezan orduak, beste egun baten berreskuratuko dira.
- Musika-tresna jotzen ikasi eta hobetzeko, astero errepasatu eta ikasi beharko da etxean.
- Garrantzitsua da musika-tresna ekartzea baita klase-orduak behar dan moduan aprobetxatu eta honeei etekina ataratea be.
- Musika-tresna jardueran egun eta ordu aldaketak egon daitezke.
- Ikasturtea hasita, ezin izango da musika-tresna saioen iraupena aldatu.
- Hezkuntza Formaleko musika-eskolak ikasturte osoan emongo dira, nahiz eta ikasleak Hezkuntza Ez-Formaleko musika jardueran baja emon.
- Beharrezkoa izanez gero, mailakatze-frogak egingo dira.

Beste batzuk

Hileko kuota, ez da ez materialik ez musika-tresnarik sartuko. Beraz, ikasleei materialen bat emonez gero, hurrengo hilean kobratuko jatzue.

Musika-tresnak

Musika-tresnak eta liburuak ordaindu egin beharko dira.

Lehen Hezkuntzan landuko diran musika-tresnak: zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, biolontxelo, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa, tronboia eta tronpeta.

HAUR HEZKUNTZA

4-5 urte
MAX ETA MIA
METODOA

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila MAX ETA MIA METODOA	2. maila MÉTODU MAX Y MIA	3. - 4. maila HIZKUNTZA MUSIKALA
+	+	+
ABESBATZA	BIRAKARIAK	MUSIKA-TRESNA

5. - 6. maila

1* AUKERA MUSIKA HIZKUNTZA + MUSIKA-TRESNA (ordu bat) + ABESBATZA + MUSIKA-TRESNA TALDEA	2 AUKERA MUSIKA HIZKUNTZA + MUSIKA-TRESNA (ordu erdi edo ordu bat)
--	---

*Aukera honetan izena emoteko, LH 3. eta 4. mailan Hezkuntza Ez-Formaleko klaseak emonda egon beharko dira.

Arte-programa




Pintura

Pinturaren bidez, umearen emozio, hautemate, intuizio eta analogia ezaugarriak landuko doguz. Arteak, komunikatzeko era danez, norberaren emozioak, izaera, sentimenduak eta beharrianak adierazteko aukera emongo deusku. Irudimena eta sormena lagun, hainbat pintura teknika jorratuko doguz, hala nola, gouache pintura, pastel pintura, tenpera solidoa, errotuladore liluragarriak, akuarela likidoa, olio-pintura akuarela erako pastel-pintura, etab. Hainbat tresna erabiltzeko modua be izango dogu, pintzelak, brotxak, txantiloiak, esponjak, zigiluak eta barriz kargatzeko pintzelak. Gainera, gure artelanetan ez da gomets, purpurin, egurrezko pieza edo ponpoiak bezalako apaingarririk faltako.

Metodologia

Ikaslearen jakin-min eta interesa oinarri hartuta, materialetan abe-ratsa izango dan espermentaziorako lekua eskaintzea da gure helburua, ikasleak aukera izan daian bizipenetatik ikasteko eta artearekiko sentzibilizazioa lantzeko. Saio bakoitzean, material eta tresnei jagokenez, zenbait proposamen egingo jako ikasleari. Honek, ikasle bakoitzari artelana modu librean garatzea eragingo deutso.

Materiala

Ikastolak jarriko dau material guztia.



HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 URTE
PINTURA

LEHEN HEZKUNTZA

1. MAILA
PINTURA



Haur-balleta

Pertsona baten garapen fisiko, kognitibo, emozional eta soziala sustatzen dauzanez, dantza garapen integraleko jardueratzat hartuko da. Holan izanik, dantzaren berezko hainbat ezaugarri, prestakuntza integral horren inguruan landu daitezke, hain zuzen be, gorputz-adierazmenean, emozioetan eta sentimenduetan. Dantzak, haur orori bere gorputzaren bidez adierazteko modua izateko bidea emongo deutso.

Ikasturte honetan, Andoni Aresti Dantza Eskolaren eskutik ekingo deusogu haur-ballet jarduerari. Lehen ikasturte honetarako proposatzen dan jarduera haur-balleta eta sormenezko dantza da. Bai haur-balletaren bidez, bai sormenezko dantza, erritmo, jolas eta fantasiaren bidez, haurrak dantza mundura erakarriko dira.

Helburuak

Haur-balletaren helburua, adierazpena, komunikazioa eta autoezagutza sustatuz, mugimendua motor gisa hartuz, gorputza modu askean erabiltzea izango da. Dantza mota honek, keinuaren eta mugimenduaren plastikotasuna, antolatze gaitasuna ikusmen, eszenografiko, musika eta gorputz-adierazpen arteetatik, sormen-baliabideen aniztasunaren bidez, espazioa eta inprobisazioa landuko dauz.

Norberaren gorputzarekiko sentsibilitatea bilatuko dau, baita espazioan, musikarekiko eta artearekiko talde-alkarreragina be, haur-rarengan sentsibilitate artistikoaren kontzeptu zabalagoa garatuz


Gainera, oso aukera interesgarria da irudimena pizteko eta umei ongizate fisiko zein mentala emateko.

Materiala

- Maillot-a, leggins edo dantzarako galtzak, ballet oinetakoak eta mototsa.
- Ikasturte hasieran emongo deusueguz argibide gehiago.

Oharrak

Zaintza zerbitzua eskainiko da. Hilean 3 € ordaindu beharko da.



HAUR HEZKUNTZA

4 URTE

HAUR-BALLETA
SORMENEZKO DANTZA

LEHEN HEZKUNTZA

1. MAILA

HAUR-BALLETA
SORMENEZKO DANTZA



Euskal Dantzak

Helburuak

Ikastolako Misioak adierazten dauanez, ezinbestekoa da Euskal Kulturaren hedapena eta zer esanik ez, honen adierazgarri diran Euskal Dantzak. Jarduera honen bidez, ikasleek gure kulturaren eta identitatearen sakontzen dabenean, gorputz adierazpena eta erritmoa landuko dabe.

Musikaz eta mugimenduz garatu eta aztertuko dira emozioen adierazpena eta ikaslearen sentimenduak.

Dantzen bidez, gure identitatea garatuko dogu. Beti be, gure kultura hedatu, ezagutarazi eta aberasteko konpromisoa hartuz.

Informazio erabilgarria

Dantza-eskoletarako erropa eta zapata erosoak jantzi beharko dira.

Izen-emote kopurua kontuan izanik, ordutegian aldaketak egon daitezke. Ahal dan neurrian, kontuan hartuko da ikasle bakoitzaren egoera.

Alardeei buruzko informazioa

- Ekitaldietara joateko izen-emotea internet bidez egingo da. Zirkularrak plataforman jarriko dira ikusgai.
- Dantza-ekitaldietara dantza-jantziak jantzita joan beharko da, salbuespenak salbuespen.
- Dantzariak, aldeztatik baietza emon eta alardeetara joaterik ez badau, twitter edo emailez jakinarazi beharko dau. Alardeetara baietza emon barik joanez gero, ez da dantzatzea bermatuko.
- Ekitaldia izago dan lekuan geratuko gara zuzenean, Ikastolara joan barik.

Jantziei buruzko informazioa

NESKAK

LEHEN HEZKUNTZA: 1., 2., 3. eta 4.maila
Begoñazpi Ikastolako jantzia, azpiko gona, ardi-lanazko mediak, eta narruzko abarkak.

Jantzia urrian erosi ahalko da, prezioa gitxi gorabehera 75€ izango da.

LEHEN HEZKUNTZA: 5., 6.maila

Larruzko abarkak, artilezko galtzerdiak eta azpiko gona. Jantziak Ikastolak itziko deusez.

Alardeetan erabili eta gero, buruko zapia eta alkandora garbi bueltatu beharko dabe Ikastolara.

MUTILAK

DANAK

Praka eta alkandora zuria, txapel gorria eta zinta gorridun abarketa zuriak.



LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. - 5. - 6. maila
EUSKAL DANTZAK

Antzerkia ingelesez

Helburua

Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan antzerkia oso aberesgarria izan daiteke, batez be, ahozko adierazmena lantzeko, jende aurrean berba egiteko, beldurrei aurre egiteko, kontzentrazioa izateko eta testuak buruz ikasteko.

Esketx eta obra laburren bidez, ikasleek aurretik esandakoak jorratuko dabez.

Informazio erabilgarria

- Taldeak, gehien jota, hamabost ikaslekoak izango dira.
- Ikasturte amaieran Lehen Hezkuntzako aretoan, urte guztian landutakoaren antzezlana egin eta ikusiko dogu. Horretarako, ikasleek behar dabezan apaingarriak eta erropa ekarri beharko dabe.



LEHEN HEZKUNTZA

3. - 4. - 5. - 6. maila
ANTZERKIA INGELESEZ

Bertsolaritza

Helburuak

Jarduera honek ikasleen bat-bateko ahozko adierazmen eta hiztegi konpetentzia indartzeko xedea dau.

Horrez gain, aisialdian bertsozaletasuna sustatzea ezezik, bertsolaritza aisialdirako eta ondo pasatzeko topagune izatea be badau helburu.

Informazio erabilgarria

- Eskaintza Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzenduko jake.
- Jarduera honek astean ordu bateko saioa izango dau.
- Ikasturte guztian hainbat jarduera burutuko dira.



LEHEN HEZKUNTZA

5. - 6. maila
BERTSOLARITZA

Kirol-programa



Helburuak

Kirol programaren helburuak honako honeek dira:

- Kirolaren bidez, pertsona moduan garatzeko, adiskidetasuna eta errespetua bezalako baloreetan hezitzea.
- Kirola gozatzeko dala irakastea eta osasunerako dauan garrantzia onartzea.
- Taldekide izatearen garrantzia azpimarratzea eta talde-lana sustatzea.

| JARDUERA | 5 URTE | LH 1 | LH 2 | LH 3 | LH 4 | LH 5 | LH 6 |
|----------------------|--------|------|------|------|------|------|------|
| XAKEA | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| PATINAJEA | ✓ | ✓ | ✓ | | | | |
| DANTZA MODERNOAK | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| TAEKWONDO | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | | |
| SASKIBALOIA | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| FUTBOL 5 | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓* | ✓* | * |
| HEZIKI/MULTIJOLASAK | | | ✓ | ✓ | | | |
| ESKU PILOTA ETA PALA | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | | |
| TENISA | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | | |
| ATLETISMOA | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

✓ Eguerdiko jarduerak

✓ Arratsaldeko jarduerak

* Hitzarmenak



Xakea

Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Lehiaketak

Ikasleek, Eskola Kirolak antolatutako banakako eta talde-txapelketetan parte hartuko dabe. Txapelketak, gehienetan, domeka goizetan izango dira.

Bizkaiko txapelketetako izen-emoteaz Ikastola arduratuko da eta ikasleek beti izango dabe entrenatzailearen bat eurekaz. Bizkaitik kanpo egingo diran txapelketetan, gurasoek egin beharko dabe izen-emotea, gainera ikasleak ez da entrenatzailearik egongo.

Txapelketetan parte hartzea hautazkoa izango da.

Dana dala, batzarrean izango dozue barri gehiago.

Xakeak zenbait gaitasun intelektual garatzen lagunduko dau: arreta, kontzentrazioa, sintesia, analisia, arazozen ebazpena, erabakiak hartzea, memoria, sormena, irudimena, arrazoibide logiko-matematika...

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



LEHEN HEZKUNTZA

3. - 4. maila
XAKEA
(Hastapena)

5. - 6. maila
XAKEA
(Hobekuntza)

Kirol-programa



Patinajea

Aisialdiko kirol honek, mugimendu eta ariketen bidez, oreka eta armonia uztartzen lagunduko dau.

Informazioa

Kirol honen helburua patinajeari ekitea da.


Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Beharrezko materiala

Norbere patinak izateaz gain, kaskoa, belaun-babesa, ukondo-babesa eta eskumuturrekoak erabili beharko dira. Gainera, patinajea egiteko jantziak egokia izan beharko dau.

Patinak Ikastolan gordetako modua egongo da.



HAUR HEZKUNTZA

5 urte
PATINAJEA
(Hastapena)

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila
PATINAJEA
(Hastapena)



Dantza modernoak

Diziplina handiko ariketa hau, musika, erritmo eta ariketa fisikoaren bidez, gorputz komunikazio eta adierazpena bultzatuz, umeei entrenigarri egingo jake.

Beharrezko materiala


Entrenatzeko materiala: Dantza egiteko zapatila eta jantzi egokiak.

Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Erakustaldiak

Ikasturtean hainbat erakustaldi izango dira Ikastolan; besteak beste, Kirol Astean, eta Ikastola Eguneko gurasoen aurreko ekitaldian...



HAUR HEZKUNTZA

5 urte

DANTZA MODERNOAK
(Hastapena)

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila

DANTZA MODERNOAK
(Hastapena)

3. - 4. - 5. - 6. maila

DANTZA MODERNOAK
(Hobekuntza)



Taekwondo

Taekwondo, koordinazio, erresistentzia, indar zein malgutasuna garatzea eta estimulatzea ahalbidetzen dauan arte martziala da. Arte martzial honek, erreflexuak hobetzeaz gain, gorputz atal guztiak lantzea be eragingo dau. Autodefentsarako artea izanik, kortesia, osotasuna, iraunkortasuna eta autokontrolaren filosofia adierazten dau.

Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Erakustaldiak / Lehiaketak

Ikasturte osoan, Eskola Kirolak eta Ikastolak antolatutako hainbat erakustaldi egongo dira. Eskola Kirolak antolatutako lehiaketetan parte hartzeko aukera be egongo da.

Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: Dantza egiteko zapatila eta jantzi egokiak.

Beste batzuk

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako **Eskola Kiroleko** lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko dabenek ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



HAUR HEZKUNTZA

5 urte

TAEKWONDO

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. maila

TAEKWONDO



Saskibaloia

Kooperazio eta aurkakotasun-kirol honek, saskibaloia-aren trebetasun tekniko-taktikak oinarri izanik eta talde-lanaren garrantzia azpimarratuz, trebetasun motoreak garatzea dau helburu.

Taldeen eraketa

- Lehenetsuna, aurreko denboraldiko kirol-taldeek izango dabe, izen-emote kopuruak ahalbidetzen badau, behintzat.
- Libre dagozan plazak emoteko, kontuan izango da izen-emotea noiz egin dan, hau da, ordena.
- Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez bada, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Lehiaketak

- LH 1. eta 2. mailan, Saski-Eskola: denboraldian hainbat topaketa izango dira.
- LH 3. eta 4. mailan, 3x3 eta 5x5 Saskibaloia: taldeek Eskola Kirolak antolatutako lehiaketetan parte hartuko dabe.
- LH 5. eta 6., 5x5 Saskibaloia: taldeek Eskola Kirolak antolatutako lehiaketetan parte hartuko dabe.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: saskibaloian jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidetarako jantzia: LH 3. mailatik aurrera partidetarako jantzia erabiliko da. Ikasturte hasieran esango jatzue non erosi. Jokalari bakoitzaren zenbakia taldeak egin eta gero adostuko da.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko dabena ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



HAUR HEZKUNTZA

5 urte
SASKI ESKOLA

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila
SASKI ESKOLA

3. - 4. maila
AURRE – MINI
3X3 / 5X5

5. - 6. maila
MINIBASKET
5X5

Kirol-programa



Futbol 5

Kooperazio eta aurkakotasun-kirol honek, futbolaren trebetasun tekniko-taktikak oinarri izanik eta talde-lanaren garrantzia azpimarratuz, trebetasun motoreak garatzea dau helburu.

Taldeen eraketa

- Lehenetsuna, aurreko denboraldiko kirol-taldeek izango dabe, izen-emote kopuruak ahalbidetzen badau, behintzat.
- Libre dagozan plazak emoteko, kontuan izango da izen-emotea noiz egin dan, hau da, ordena.
- Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez bada, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Lehiaketak

- LHko lehen zikloan, ikasturte hasierako batzarrean zehaztuko da.
- LHko bigarren zikloan, taldeek Eskola Kirolak antolatzen dauzan lehiaketetan parte hartuko dabe.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: futboleko jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidarako jantzia: LH 2. mailatik aurrera partidatarako jantzia erabiliko da. Ikasturte hasieran esango jatzue non erosi. Jokalari bakoitzaren zenbakia taldeak egin eta gero adostuko da.


Hitzarmenak

LH 3. mailatik aurrera, Ikastolak futboleko jarduteko dauan hitzarmenari esker, jokalariek UD La Merced klubean jokatzeko aukera izango dabe.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko dabene ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



HAUR HEZKUNTZA

5 urte
FUTBOL ESKOLA

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila
FUTBOLA 5

3. - 4. maila
FUTBOL 5
(Ikastolan)
FUTBOL 7*

5. - 6. maila
FUTBOLA 7*

*Hitzarmena: UD La Merced – Artxandako Mertxetarrak (Artxanda)

HEZIKI / Multijolasak

Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Lehiaketak

Eskola Kirolak antolaturiko hainbat lehiaketatan parte hartuko da.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: kirola egiteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidetarako jantzia: Ikastolako kamiseta eta txandala.

Programa honek, trebetasun motoreak sustatzeaz gain, etorkizunean egin nahi izango daben edozein kirol egiteko behar dan zenbait ekintza-motor egitea be badau helburu. Oinarrizko trebetasun motoreak, joko eta jolas soziomotoreen bidez landuko dira.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila
HEZIKI / MULTIJOLASAK

Esku pilota eta pala

Jarduera honen helburu nagusia, astero esku pilota eta pala tartekatuz, ikasleak jokoan murgiltzea izango da. Kirol bi honeetan, gorputza eta pilota uztartzen zein taldekide/ aurkariakaz hartu-emonak izaten zein jokoan oinarrizko arauen barri jasotzen ika-

Taldeen eraketa

Ziklo bakoitzeko talde bakarra sortuko da, taldeko maximoa 14 jokalarikoa izango da eta minimoa 8koa. Inskripzio-ordena errespetatuko da.

Lehiaketak

Ikasturte osoan, hainbat lehiaketa edo erakustalditan parte hartzeko aukera baloratuko da.


Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: Frontoian kirola egiteko errapa eta oinetako egokiak.

Beste batzuk

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako **Eskola Kiroleko** lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daberen ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, errodlatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. maila
 ESKU PILOTA ETA PALA

Tenisa

Jarduera honen bidez, buruko arintasuna, esku-begi koordinazioa, erreflexuak, mobimenduen abiadura, sinkronizazioa, eta erreakzionatzeko zein kontzentratzeko gaitasuna hobetuko da.

Taldeen eraketa

Ziklo bakoitzeko talde bakarra sortuko da, taldeko maximoa 14 jokalarikoa izango da eta minimoa 8koa. Inskripzio-ordena errespetatuko da.

Lehiaketak

Ikasturte osoan hainbat lehiaketa edo erakustalditan parte hartzeko aukera baloratuko da.


Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: Kirola egiteko erropa eta oinetako egokiak.

Beste batzuk

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako **Eskola Kiroleko** lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daberen ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 1a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. maila
TENISA

Atletismoa

Atletismoa, bakarkako kirol guztien oinarri diran arineketa, jauzi eta jaurtiketen kirol multzoa dala esan daiteke. Mundu mailan, gainontzeko banaka zein taldeka egiten diran kirolen oinarritzko kiroltzat hartzen da.

Taldeen eraketa

Taldeak mailaka osatuko dira. Baina mailaka egiteko modurik ez badago, zikloka egiteko aukera aztertuko da.

Lehiaketak

Eskola Kirolak antolatzen dauzan lehiaketetan parte hartuko dabe, besteak beste, kros, miniatletismo, herri lasterketa eta pista-frogetan.


Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: atletismoan jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Lehiaketetarako erropa: txapelketetan Ikastolako talde-jantzia erabiliko da. Ikasturte hasieran esango jatzue non erosi.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 20a baino lehen, Eskola Kiroleko web-orrialdean emon beharko dabe izena.

Horretaz gain, urriaren 2a baino lehen, ikasleen karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria Ikastolako kirol arduradunari emailez bidali beharko jako (informazio gehiago, katalogo honen 25. orrialdean).



LEHEN HEZKUNTZA

3. - 4. - 5. - 6. maila
ATLETISMOA

Eskola kirolean izen-emotea

Eskola Kirolak, Hezkuntza Saitetik ezin dauanez Bizkaiko umeei buruzko daturik eskuratu, izena emoteko prozesua aldatu egin dau; kirolariaren aitak, amak edo legezko-tutoreak burutu beharko dauararik izen-emotea.

Nork egin behar dau Eskola Kirolean izen-emote prozesua?

- HEZIKI: izena emoten daben LH 1. mailako ikasle guztiek eta LH 2. mailako ikasle barriek.
- SASKIBALOAIA, FUTBOLA, ATLETISMOA eta XAKEA: izena emoten daben LH 3. mailako ikasle guztiek eta lehenengo aldiz Eskola Kiroleko txapelketetan parte hartuko daben ikasleek.
- Gainontzeko kirol jardueretarako ez da Eskola Kirolean izen-emoterik egin beharko.

Kirolariari alta emoteko argibideak:

1. Webgune honetan sartu: <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola>
2. "Nire Eskola Kirola" atalean sartu (ezkerraldean).
3. "0. Eskola Kirolean Alta barria" ataleko "KIROLARIAREN ALTA" link-ean sartu (laranja kolorez dozue eskuinaldean).
4. Bertan agertzen diran datuak bete eta datu-lagapena onartzen dozuen laukia markatu.
5. Azkenik, "GORDE" sakatu.

Prozesu hau, Ikastolako plataforman izena emoteagaz batera, irailaren 20a baino lehen egitea eskertuko deusuegu. Horren ostean, Ikastolak kirol taldeen izen-emoteak gauzatu beharko dauz. Kirolaria ez badago Eskola Kirolean alta emonda, ezin izango dogu fitxa osotu.


Hauxe izango da izen-emote prozesuari amaiera emoteko, urriaren 1a baino lehen, Ikastolako kirol arduradunari e-mailez bidali beharreko dokumentazioa:

- Kirolariaren karnet-argazkia.
- Kirolariaren erroldatze-agiriaren fotokopia.
- Gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria.

Edozein zalantza izanez gero, Ikastolako kirol arduradunagaz posta elektronikoz zein telefonoz hartu-emonetan jarri.



Karnet-argazkia



Erroldatze-agiriaren fotokopia



Eskola Kirola ziurtagiria

Infomazio erabilgarria

Entrenamendu-arauegia

- Derrigorrezkoa izango da jarduera bakoitzerako aproposa dan erropa eta kirol materiala erabiltzea. Osterantzean, ikasleak ez dau entrenamenduan edo partidatan parte hartuko.
- Ordutegia errespetatu egin beharko da. Era berean, partida edo txapelketa egunetan entrenatzaileak esandako ordua errespetatu beharko da. Salbuespenik egotekotan, aldezturik esan beharko jako entrenatzaileari.
- 17:45era arte, familiak ezin izango dira entrenamenduetara sartu.
- Entrenamendu saioen planifikazioa hobetzeko, gaixotasun edo bestelako arazoengaitik entrenamendura joan ezik, entrenatzaileari ahalik eta arinen jakinarazi beharko jako.
- Entrenamenduetan eta partidetan, entrenatzailea izango da taldearen arduradun nagusia.

Barne-dekalogoia

Eskola Kiroleko jardueretan parte hartuko daberen kirolari, entrenatzaile eta gurasoek Begoñazpi Ikastolak sortutako dekalogoia sinatu beharko dabe.

Ekimen honen helburu nagusia, Eskola Kiroleko jardueretan Begoñazpi Ikastolako kirolari, entrenatzaile eta guraso guztiak joko garbia sustatu eta kiroltasunaren aurkako jarduerak eta jarrerak arbuatzea da.



Haur Hezkuntza

Eguerdiko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|----------|--------|---|---------------|----------------|
| INGELESA | 4 urte | Martitzen eta eguen edo eguazten eta bariku | 14:00 - 14:45 | Hilean 29,50 € |
| | 5 urte | Martitzen eta eguen edo eguazten eta bariku | 13:00 - 13:45 | |
| MUSIKA | 4 urte | Martitzen eta eguen edo eguazten eta bariku | 14:00 - 14:45 | Hilean 45,00 € |
| | 5 urte | Martitzen eta eguen edo eguazten eta bariku | 13:00 - 13:45 | |
| PINTURA | 4 urte | Astelehen edo martitzen (Astean saio 1) | 13:45 - 14:45 | Hilean 30,00 € |
| | 5 urte | Astelehen edo martitzen (Astean saio 1) | 13:00 - 14:00 | |

Ahalik eta jarduera gehienetan izena emoteko aukera eskaintzeko asmoz, jarduera batzuk egun baten baino gehiagotan eskainiko dira. Era honetan, ikasle guztiak eguerdian eskaintzen diren jardueran bitan izena emoteko aukera dabela ziurtatuko dogu. Eguerdian eskaintzen diren hiru jarduerak egin nahi izanez gero, beti be ikasle kopurua kontuan hartuz, eskakizunari erantzuna emoten ahaleginduko gara.

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu denez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

Haur Hezkuntza

Arratsaldeko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|------------------|------------|-----------|---------------|----------------|
| HAUR-BALLETA* | 4 - 5 urte | Eguen | 17:00-18:00* | Hilean 45,00 € |
| PATINAJEA | 5 urte | Astelehen | 16:45 - 18:15 | Hilean 18,00 € |
| DANTZA MODERNOAK | 5 urte | Bariku | 16:45 - 17:45 | Hilean 15,00 € |
| TAEKWONDO | 5 urte | Eguen | 16:45 - 17:45 | Hilean 20,00 € |
| SASKIBALOIA | 5 urte | Eguazten | 16:45 - 18:15 | Hilean 20,00 € |
| FUTBOLA 5 | 5 urte | Martitzen | 16:45 - 18:15 | Hilean 20,00 € |

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte oso-rako hartu denez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

* Zaintza zerbitzua eskainiko da. Hilean 3 € ordaindu beharko da.

Ordutegiak eta prezioak



Lehen Hezkuntza

Lehen Zikloa 1. + 2. maila

Ahalik eta jarduera gehienetan izena emoteko aukera eskaintzeko asmoz, jarduera batzuk egun baten baino gehiagotan eskainiko dira. Era honetan, ikasle guztiek eguerdian eskaintzen diren jarduera bitan izena emoteko aukera dabela ziurtatuko dogu. Eguerdian eskaintzen diren hiru jarduerak egin nahi izanez gero, beti be ikasle kopurua kontuan hartuz, eskakizunari erantzuna emoten ahaleginduko gara.

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu danez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

*Ingelesa: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon dauan jarduera kontuan izanik egingo dauz taldeak Ikastolak.

**Musika: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon dauan jarduera kontuan izanik jarriko dauz Ikastolak hizkuntza-musikala eta abesbatza edo birakariak egiteko egunak.

Eguerdiko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|----------------|---------|--|-----------------|----------------|
| INGELESA* | 1. - 2. | Astelehen eta eguazten edo Martitzen eta eguen | 13:30 - 14:25 | Hilean 30,50 € |
| MUSIKA** | 1. | Astelehen + eguazten (abes.) edo Martitzen + eguen (abes.) | 13:30 - 14:25 | Hilean 48,00 € |
| | 2. | Astelehen edo eguen + bariku (birakariak) | | Hilean 51,00 € |
| PINTURA | 1. | Martitzen edo bariku (Astean saio 1) | 13:30 - 14:25 | Hilean 32,00 € |
| EUSKAL DANTZAK | 1. | Bariku | 13:15-14:00 edo | Hilean 18,00 € |
| | 2. | Eguazten | 14:00-14:45 | |

Ordutegiak eta prezioak

Lehen Hezkuntza

Lehen Zikloa 1. + 2. maila



Arratsaldeko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------------|---------|------------------------|--------------|----------------|
| HAUR BALLETA* | 1. | Eguen | 17:00-18:00* | Hilean 45,00 € |
| PATINAJEA | 1. - 2. | Eguazten | 16:45-18:15 | Hilean 18,00 € |
| DANTZA MODERNOAK | 1. - 2. | Bariku | 16:45-17:45 | Hilean 15,00 € |
| TAEKWONDO | 1. - 2. | Astelehen | 16:45-17:45 | Hilean 20,00€ |
| SASKIBALOIA | 1. - 2. | Astelehen eta eguazten | 16:45-18:15 | Hilean 30,00 € |
| FUTBOLA 5 | 1. - 2. | Martitzen eta eguen | 16:45-18:15 | Hilean 30,00 € |
| HEZIKI / MULTIJOLASAK | 1. - 2. | Martitzen eta eguen | 16:45-18:15 | Hilean 30,00 € |
| ESKU PILOTA ETA PALA | 1. - 2. | Bariku | 16:45-17:45 | Hilean 20,00 € |
| TENISA | 1. - 2. | Bariku | 16:45-17:45 | Hilean 35,00 € |

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte oso-rako hartu denez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

* Zaintza zerbitzua eskainiko da. Hilean 3 € ordaindu beharko da.

Ordutegiak eta prezioak



Lehen Hezkuntza

Bigarren Zikloa 3. + 4. maila

Ahalik eta jarduera gehienetan izena emoteko aukera eskaintzeko asmoz, jarduera batzuk egun baten baino gehiagotan eskainiko dira. Era honetan, ikasle guztiek eguerdian eskaintzen diren jarduerak bitan izena emoteko aukera dabela ziurtatuko dogu; bateraezintasun bakarra hauxe izango da: "Xakea + Antzerkia ingelesez". Eguerdian eskaintzen diren hiru jarduerak egin nahi izanez gero, beti be ikasle kopurua kontuan hartuz, eskakizunari erantzuna emoten ahaleginduko gara.

Hileko kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu denez, jagokan hilea eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioan ez da materialik sartuko.

*Ingelesa: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon davan jarduerak kontuan izanik antolatuko dauz taldeak Ikastolak.

**Musika: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon davan jarduerak kontuan izanik jarriko dau Ikastolak hizkuntza-musikala egiteko eguna. Musika-tresna saiorako beste egun bat jarriko dau.

Eguerdijo jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|---------------------|-------|--|-----------------------------|----------------|
| INGELESA* | 3. | Martitzen eta eguen edo | 13:30-14:25 | Hilean 32,50 € |
| | 4. | Eguazten eta bariku | 14:30-15:25 | |
| MUSIKA** | 3. | Martitzen edo eguazten + Bigarren eguna (musika-tresna) | 13:30-14:25 | Hilean 90,00 € |
| | 4. | Astelehen, eguazten edo eguen + Bigarren eguna (musika-tresna) | 14:30-15:25 | |
| EUSKAL DANTZAK | 3. | Eguen | 13:15-14:00 edo 14:00-14:45 | Hilean 22,00 € |
| | 4. | Bariku | 14:00-14:45 edo 14:45-15:30 | |
| ANTZERKIA INGELESEZ | 3. | | 13:30-14:25 | Hilean 21,00 € |
| | 4. | Astelehen | 14:30-15:25 | |
| XAKEA | 3. | | 13:30-14:25 | Hilean 19,00 € |
| | 4. | Astelehen | 14:30-15:25 | |

Ordutegiak eta prezioak



Lehen Hezkuntza

Bigarren Zikloa 3. + 4. maila

Arratsaldeko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|----------------------|---------|----------------------|---------------|----------------|
| DANTZA MODERNOAK | 3. - 4. | Eguazten | 16:45 - 18:15 | Hilean 18,00 € |
| TAEKWONDO | 3. - 4. | Martitzen | 16:45-17:45 | Hilean 20,00 € |
| SASKIBALOA | 3. - 4. | Astelehen eta bariku | 16:45-18:15 | Hilean 30,00 € |
| FUTBOL 5 | 3. - 4. | Martitzen eta eguen | 16:45 - 18:15 | Hilean 30,00 € |
| ESKU PILOTA ETA PALA | 3. - 4. | Eguen | 16:45-17:45 | Hilean 20,00 € |
| FUTBOL 5 | 3. - 4. | Eguen | 16:45-17:45 | Hilean 35,00 € |
| ATLETISMOA | 3. - 4. | Astelehen eta bariku | 16:45-18:15 | Hilean 30,00 € |

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte oso-rako hartu denez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

Ordutegiak eta prezioak



Lehen Hezkuntza

Hirugarren Zikloa 5. + 6. maila

Eguerdiko jarduerak

Ahalik eta jarduera gehienetan izena emoteko aukera eskaintzeko asmoz, jarduera batzuk egun baten baino gehiagotan eskainiko dira. Era honetan, eguerdietan eskaintzen diren jarduera bitan ikasle guztiek izena emoteko aukera dabela ziurtatuko dogu; bateraezintasun bakarra honakoa da: "Bertsolaritza + Euskera tailerra". Eguerdian eskaintzen diren hiru jarduera egin nahi izanez gero, beti be ikasle kopurua kontuan hartuz, eskakizunari erantzuna emoten ahaleginduko gara.

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu danez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.

*Ingelesa: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon dauan jarduera kontuan izanik egingo dauz taldeak Ikastolak.

**Musika: Behin izen-emotea gauzatuta eta ikasle bakoitzak izena emon dauan jarduera kontuan izanik jarriko dau Ikastolak hizkuntza-musikala egiteko eguna. Musika-tresna saiorako beste egun bat jarriko dau.

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|------------------|--|--|---------------|-----------------|
| INGELES* | 5. - 6. | Astelehen eta eguazten edo Martitzen eta eguen | 14:30-15:25 | Hilean 36,50 € |
| EUSKERA TAILERRA | 5. - 6. | Martitzen eta eguen | 14:30-15:25 | Hilean 36,00 € |
| MUSIKA** | 5. - 6.
Musika-eskola
(Musika-tresna
30 min.) | 5. Astelehen,
martitzen edo
eguazten
+
6. Astelehen,
martitzen edo
eguen
+
Bigarren eguna
(Musika-tresna 30 min.) | 14:30-15:25 | Hilean 90,00 € |
| | 5. - 6.
Musika-eskola
(Musika-tresna
ordu 1) | 5. Astelehen,
martitzen edo
eguazten
+
6. Astelehen,
martitzen edo
eguen
+
Bigarren eguna
(Musika-tresna ordu 1) | 14:30-15:25 | Hilean 166,00 € |
| | 5. - 6.
Ofiziala | 5. Astelehen,
martitzen edo
eguazten
+
6. Astelehen,
martitzen edo
eguen
+
Bigarren eguna
(Musika-tresna ordu 1) | 14:30-15:25 | Hilean 186,00 € |
| | | +
Astelehen
(Abesbatza eta musika-tresna taldea) | 16:30 - 18:30 | |

Lehen Hezkuntza

Hirugarren Zikloa 5. + 6. maila

Eguerdiko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|---------------------|---------|---|-------------|----------------|
| EUSKAL DANTZAK | 5. - 6. | Eguazten | 14:15-15:10 | Hilean 22,00 € |
| ANTZERKIA INGELESEZ | 5. - 6. | Martitzen edo bariku
(Astean saio 1) | 14:30-15:25 | Hilean 21,00 € |
| BERTSOLARITZA | 5. - 6. | Eguen | 14:30-15:25 | Hilean 22,00 € |
| XAKEA | 5. - 6. | Bariku | 14:15-15:10 | Hilean 19,00 € |

Hilean kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte oso-rako hartu denez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartuko.



Ordutegiak eta prezioak



Lehen Hezkuntza

Hirugarren Zikloa 5. + 6. maila

Arratsaldeko jarduerak

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|------------------|---------|----------------------|----------------|----------------|
| DANTZA MODERNOAK | 5. - 6. | Martitzen | 16:45 - 18:15 | Hilean 18,00 € |
| SASKIBALOA* | 5. | Eguazten eta bariku | 16:45 - 18:15 | Hilean 30,00 € |
| | 6. | | 17:45 - 19:15* | |
| ATLETISMOA | 5. - 6. | Astelehen eta bariku | 16:45 - 18:15 | Hilean 30,00 € |

Hileko kobratuko da.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte oso-rako hartu denez, jagokon hilea eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.

Adierazitako prezioan ez da materialik sartuko.

*Saskibaloia: 6. mailako saskibaloia jokalariek, barikuetan, entrenamendua hasi arte, Ikastolan gelditu ahalko dira begirale baten ardurapean. Hilean 4 € ordaindu beharko da.

Jardueren iraupena

Haur Hezkuntza

| JARDUERA | HASIERA | AMAIERA | KUOTA KOPURUA |
|------------------|-------------|---------------|---------------|
| INGELESA | Urriaren 1a | Maiatzaren 31 | 8 ordainketa |
| MUSIKA | | | |
| PINTURA | | | |
| HAUR-BALLETA | | | |
| PATINAJEA | | | |
| TAEKWONDO | | | |
| SASKIBALOA | | | |
| FUTBOLA 5 | | | |
| DANTZA MODERNOAK | | | |

Oharrak:

Abenduaren 22an eta martiaren 22an ez da Hezkuntza Ez-Formaleko jarduerarik burutuko.

Jardueren iraupena

Lehen Hezkuntza

| JARDUERA | HASIERA | AMAIERA | KUOTA KOPURUA |
|---------------------|---------------|---------------|----------------|
| INGELESA | Urriaren 1a | Maiatzaren 31 | 8 ordainketa |
| EUSKERA TAILERRA | | | |
| MUSIKA | Irailaren 18a | Bagilaren 15a | 9 ordainketa |
| PINTURA | Urriaren 1a | Maiatzaren 31 | 8 ordainketa |
| HAUR-BALLETA | | | |
| EUSKAL DANTZAK | | Bagilaren 15a | 8,5 ordainketa |
| ANTZERKIA INGELESEZ | | | |
| BERTSOLARITZA | | Maiatzaren 31 | 8 ordainketa |

Oharrak:

Abenduaren 22an eta martiaren 31n ez da Hezkuntza Ez-Formaleko jarduerarik egongo.

Jardueren iraupena

Lehen Hezkuntza

| JARDUERA | HASIERA | AMAIERA | KUOTA KOPURUA |
|-----------------------|---------------|---------------|----------------|
| XAKEA | Irailaren 18a | Maiatzaren 31 | 8,5 ordainketa |
| PATINAJEA | | | |
| DANTZA MODERNOAK | | | |
| TAEKWONDO | | | |
| SASKIBALOIA | | | |
| FUTBOL 5 | | | |
| HEZIKI / MULTIJOLASAK | | | |
| ESKU PILOTA ETA PALA | | | |
| TENISA | | | |
| ATLETISMOA | | | |

Oharrak:

Abenduaren 22an eta martiaren 22an ez da Hezkuntza Ez-Formaleko jarduerarik burutuko.

Izen-emotea


IZENA EMOTEKO EPEA: bagilaren 6etik 18ra.

Izena emoteko arauak

Izen-emoteak, plataformako hasiera-orrian dagoan "Jarduerak eta zerbitzuak" atalean klikatuz egin beharko dira.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Matrikulak izen-emotearen arabera egingo dira.
- Epez kanpo egiten diran matrikulak, itxarote-zerrendan egongo dira eta aukeren arabera kudeatuko dira.
- Epez kanpoko izen-emoteak posta-elektronikoaren bidez egin beharko dira.
- Zenbait jardueratan, taldearen beharizanaren arabera, gehiengo eta gitxiengo kopurua egongo da.
- Hileko eta hilean kobratuko da.
- Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu danez, jagokon hila eta hurrengo biak ordaindu beharko dauz.
- Lekua gordetzea: Bagilaren amaieran, izen-emotea egin dan jarduera bakoitzeko, itzuliko ez jatzuezan 25€ kobratuko jatzue. Diru hori, 2024ko azken kuotatik deskontatuko jatzue.



Klikatu titulua,
ez marrazkia

Informazio orokorra

Ikasleen jarraipena



Hezkuntza Ez-Formaleko jarduera guztietako ikasleen jarraipena, prozesu honen bidez egingo da:

Hileko txostenak: hilean egon diran gorabeherak txosten baten jaso eta ikaslearen tutoreari emongo jakoz. Bertan, etorri ez diran egun, lan eta jarreraren barri emongo da. Gainera, ohar mota bi egongo dira. Bata, berdea, tutoreak umeagaz jarreraren gainean berba egiteko eta bestea gorria, tutoreak edota Ikastolako koordinatzaileak ikasleagaz eta gurasoakaz berba egiteko. Horretaz gain, gogoratu, tutoreagaz izaten diran batzarretan Hezkuntza Ez-Formaleko jardueren barri be jasoko dala.

Gainera, egoera bereziren bat izaten bada, Ikastolako koordinatzailea ahalik eta arinen jarriko da zuokaz hartu- emonetan.

Hiruhileko txostenak: Hezkuntza Formaleko txostenakaz batera, jarduera bakoitzean landutako edukiak ebaluatzen dauzan Hezkuntza Ez-Formaleko notak be jasoko dira.

Edozein zalantza argitu gura izanez gero, jarri Ikastolako koordinatzaileagaz hartu-emonetan.

Jarduera honeetan guztietan, Ikastolako arautegia ezarriko da.

Hartu-emonetan jartzeko

Edozein zalantza edo iradokizunetarako Ikastolako telefono zenbakira deitu: 944 005 300

Orokorra

Koordinazioa: jon.ibarrondo@begonazpi.eus

Haur Hezkuntza

Ingelesa: karmelepereda@begonazpi.org

Pintura: nereapena@begonazpi.org

Haur-balleta: nereapena@begonazpi.org

Musika: lidiaapaolaza@begonazpi.org

Kirola: landerbeato@begonazpi.org

Lehen Hezkuntza

Ingelesa: estibalizborrajo@begonazpi.org

Euskera tailerra: goranervuizdeescudero@begonazpi.org

Musika: naraosanmillan@begonazpi.org

Euskal Dantzak: noramunoz@begonazpi.org

Bertsolaritza: garazi.hormaetxe@begonazpi.eus

Kirola: landerbeato@begonazpi.org



hezkuntza ez-formala
educación no formal

2023-2024 Ikasturteko Hezkuntza Ez-Formaleko Programa

Jesús Galíndez 15
48004 Bilbao
Tlf: 94 400 53 00
Fax: 94 400 53 01
www.begonazpi.org

